

**UPV/EHUko IKASLEEN SEKTOREAN LASTER EGIN  
BEHAR DIREN KLAUSTRORAKO ETA, HALA  
DAGOKIONEAN, IKASTEGIKO BATZARRETARAKO  
HAUTESKUNDEETARAKO ESKULIBURUAREN 1. FASEA**

|  |                                      |
|--|--------------------------------------|
| <b>SARRERA.....</b>  | <b>2</b>                             |
| <b>ERROLDAK OSATZEKO IRIZPIDEAK .....</b>  | <b>2</b>                             |
| <b>IKASTEGI BATEAN BAINO GEHIAGOTAN BALDIN BADUT MATRIKULARIK?</b><br><i>¡Error! Marcador no definido.</i> |                                      |
| <b>NOLA JAKIN DEZAKET HAUTESLE ERROLDAN NAGOEN? .....</b>  | <b>3</b>                             |
| <b>ZER EGINGO DUT ERROLDAN EZ BANAGO?.....</b>   | <b>4</b>                             |
| <b>NOLA AURKEZTEN DA INPUGNAZIO BAT? .....</b>   | <b>4</b>                             |
| <b>HAUTESKUNDE BARRUTIA ETA HAUTESKUNDE MAHAIA .....</b>   | <b>4</b>                             |
| <b>NORTZUK OSATZEN DITUZTE HAUTESKUNDE BATZORDEAK?.....</b>  | <b>5</b>                             |
| <b>ARGIBIDEEN HURRENGO FASEA .....</b>   | <i>¡Error! Marcador no definido.</i> |
| <b>IKASLEEN KLAUSTRORAKO HAUTESKUNDEETARAKO EGUTEGIA. 2013ko<br/>AZAROA/ABENDUA.....</b>                   | <b>10</b>                            |

## SARRERA

Gobernu Kontseiluak, **2017ko irailaren 28an** egindako bileran, Unibertsitateko Klaustorako hauteskundeetarako deia egitea erabaki zuen, ikasleen sektorean, eranskin gisa atxiki den egutegiaren arabera. Ikasleen ordezkariak duten 53 pertsonak, datorren abenduaren 12an hautatuko dira.

Klaustorako 53 postuak UPV/EHUREN ikastegi ezberdinen artean banatzen dira, gutxien dela, bana ordezkari ikastegi edo doktorego eskola bakoitzeko esleituta. Honetarako, giza zientzien titulazioa (Esperientzia Gelak deiturikoa) ikastegi bakar bat bezala hartzen da eta ordezkari bakar bat esleitzen zaio. Gainontzeko ordezkariak (32) ikastegien artean banatuko dira, kidego honek ikastegi bakoitzean daukan proportzio erlatiboaren arabera.

Behin behineko banaketa ikastegi guztietara igortzen da ikastegiko iragarki tauletan erroldekin batera argitara dadin. Erroldei egindako inpugnazioak ebatzi ondoren, behin betiko bihurtzen da erroldekin batera, Hauteskunde Batzorde Nagusiak hala erabakita.

Honez gain, hauteskunde hauekin bat etorrira, ikastegi gehienetan ikastegi batzarreko ordezkariak ere hautatuko dituzte tokian tokiko ikasleek; ikasle hauek Ikastegiko ikasle kontseilua osatuko dute.

Honela hautatutako ikasleek, ikastegian ikastegiko batzarrean dagozkien tokietan aritzeaz gainera, ikastegiko ikasleen kontseilua osatuko dute (horiek eta ez beste inork).

## ERROLDAK OSATZEKO IRIZPIDEAK

### **Errolda 2017ko azaroaren 2an itxiko da.**

Idazkaritza nagusi honek erroldak osatuko ditu GAUR aplikazioko errolden programaren bidez eta ikastegi guztietara igorriko ditu ikastegiz ikastegiari atxikitako ikasleen behin behineko erroldak, bai eta UPV/EHUREN Master eta Doktorego Eskolari adskribaturik egonik, botoa ikastegi horretan botoa emanen duten ikasleena eta ikastegi bakoitzari dagozkien klaustrokideen behin-behineko esleipena ere; dokumentu hauek **2017ko azaroaren 3an** iragarki taulan jarri behar dira.


Ikastegiak hala eskatu badu, Idazkaritza Nagusiak Ikastegiko Batzarraren hauteskundeetan baliatu beharreko errolda ere osatu eta igorriko dio.

Sufragio aktiborako (botoa emateko) eskubidea gauzatzeko ***baldintzak hautesle erroldak itxeko egunean bete beharko dira, hau da, azaroaren 2an***, eta botazioaren egunera arte bete beharko dira.

## NOLA JAKIN DEZAKET HAUTESLE ERROLDAN NAGOEN?

Errolda azaroaren 3an argitaratuko da ikastegi guztietako iragarki oholetan eta bertan egongo da abenduaren 12ra arte. Hortaz, errolda zauden ala ez jakiteko lehenengo modua zeure ikastegira (zeuk ikasteko erabili edo adskribatu zaizunera) joatea da.

**Ikasleek** GAURren bidez ere kontsultatu ahal izango dute errolda. Zein bere datuak egiaztatu ondoren, ezkerreko zutabea aukera berri bat dutela ikusiko dute: “Errolda”, eta horren azpian “Klaustrorako hauteskundeak – Errolda” eta “Ikastegiko Batzarrerako hauteskundeak – Errolda” azpiatalak (ikusirudia). Aukera honen gainean klik eginez, norberaren erroldako datuak ageriko dira. Azkenik, inpugnazio formulario bat eskuratzeko aukera ere ageri da aplikazioan, datuak ez badira zuzenak edo aplikazioak mezu hau erakusten badizu: “ez dago errolda-daturik 2017-2018 ikasturtean”



**Unibertsitateko Klaustrorako hauteskundeetako errolda**

**Erroldako datuak:**

|                              |  |
|------------------------------|--|
| <b>Errolda:</b>              | Unibertsitateko Klaustrorako hauteskundeak |
| <b>Abizenak eta izena:</b>   |  |
| <b>Bozkatzeko-ikastegia:</b> | Psikologia Fakultatea                      |

**BEHIN-BEHINIKO ERROLDA INPUGNATZEKO IDATZIA:**

[http://www.idazkaritza-nagusia.ehu.es/p254-content/eu/contenidos/formsehu/secretaria\\_general/eu\\_instancia/impugnar.php](http://www.idazkaritza-nagusia.ehu.es/p254-content/eu/contenidos/formsehu/secretaria_general/eu_instancia/impugnar.php)

Nahiz eta datuak web orrian kontsultatu ahal izan, erroldak ez dira inoiz ere hor agertuko.

## ZER EGINGO DUT ERROLDAN EZ BANAGO?

### INPUGNAZIOA AURKEZTU

#### NOLA AURKEZTEN DA INPUGNAZIO BAT?

Inpugnazioa idatziz aurkeztu behar da, azaroaren 8ko (asteazkena) 12.00ak baino lehen Erregistro Orokorreko edozein bulegotan edo, kasuan kasu, webeko formulario bidez, Hauteskunde Batzorde Nagusiko buruari zuzenduta.

Web bidezko formularioa erabiliz gero, aplikazioan ohar bat azaltzen da mezua ondo bidali dela esateko. Horrelako oharrik jasotzen ez baduzu, Idazkaritza Nagusiarekin jarri harremanetan [idadzkaritza.nagusia.hauteskundeak@ehu.eus](mailto:idadzkaritza.nagusia.hauteskundeak@ehu.eus) posta elektronikoaren bidez edo, bestela, inpugnazio bat aurkeztu erregistroko bulego batean.

Formularioa betetzeko klikatu hemen: [FORMULARIO](#)

Hauteskunde Batzorde Nagusiak egiaztatuko ditu erroldetan egindako zuzenketak, eta okerrik edo hutsik antzeman ez gero, zuzendu eta inpugnazioak ebatziko ditu. Horretarako, ikastegiko hauteskunde batzordeak inpugnazioei buruzko txostena egin eta erabakia, proposamenarekin batera, Hauteskunde Batzorde Nagusiari igorriko dio, hark **behin betiko erroldak** aldarrika ditzan **2017ko azaroaren 9an**.

Behin betiko zerrendekin batera klaustroko ordezkarien banaketa zehaztuko da.

#### HAUTESKUNDE BARRUTIA

Ikasleen kasuan, **hauteskunde barrutia** atxikita duten ikastegia da, Giza Zientzietako Titulazioan (Esperientzia Gelak ) eta graduondokoak izan ezik. Graduondoko ikasleen barrutia UPV/EHUren Master eta Doktorego Eskola da, eta Esperientzia Geletako ikasleena UPV/EHU osoa.

Graduondoko ikasleek, Master eta Doktorego eskolara atxikituak daudenak beraien ikasketak burutzen dituzten ikastegian emango dute botoa, ezberdindutako hautesontzi batean.

## NORTZUK OSATZEN DITUZTE HAUTESKUNDE BATZORDEAK?

Hauteskunde Batzorde Orokorraz gain, ikastegi bakoitzean ikastegiko hauteskunde batzorde bat egongo da; osaera hurrengoa da: dekanoa edo zuzendaria edo hark eskuordetutakoa (batzordeko burua izango da); idazkari akademikoa (idazkaria izango da); barrutiko hauteskunde talde bakoitzeko ordezkari bat.

**Komenigarria da bilera egutegia zehaztea,** horretarako jarraian aurkezten den eredia gomendatzen da.

| IKASTEGIKO HAUTESKUNDE BATZORDEAREN BILERAK  |  |
|--|--|
| <p><b>1. Biler</b><br/>2017ko azaroaren 8an (asteazkena) <b>eguerdiko 12.00etatik aurrera</b>, edo azaroaren 9an goizeko 9:00etan.</p> <p>Gai zerrenda:</p>                      | <p><b>Lehena.-</b> Ikastegiaren Hauteskunde Batzordearen eraketa.</p> <p><b>Bigarrena.-</b> Hauteskunde Batzorde Orokorreko txostena igortzea behin-behineko eroldaren inguruan aurkeztutako inpugnazioak aipatuz (klaustorako hauteskudeen kasuan) eta horren inguruko erabaki proposamena.</p> <p><b>Hirugarrena.-</b> Espedienteak Hauteskunde Batzorde Orokorreara bidaltzea (onartutako eroldarekin, aurkeztu diren inpugnazioen kopia batekin, edo hala bada, inpugnazioarik ez dela aurkeztu esanez).</p>   |
| <p><b>2. bilera</b><br/><b>Azaroaren 17an</b> (ostirala) <b>eguerdiko 12.00etatik aurrera</b> edo azaroaren 20an (21ean goizeko lehen orduan egin daiteke)<br/>Gai zerrenda:</p> | <p><b>Lehena.-</b> Aurreko bilerako akta irakurri eta, egokitzat hartuz gero, onartzea.</p> <p><b>Bigarrena.-</b> Hautagaien behin-behineko aldarrikapena (klaustorako, eta hala badagokio, Ikastegiko Batzorderako) eta Ikastegiko iragarki taulan argitatzeko agindua ematea.</p> <p><b>Hirugarrena.-</b> Bozketa egunean ezarriko diren hauteskunde mahaien kokapena eta kopurua berrestea.</p> <p><b>Laugarrena.-</b> Hauteskunde mahaietan egongo diren kideen zozketa egitea eta ordezkioak izendatzeko irizpideak zehaztea, kide titularrek arrazoi justifikatuak direla-eta mahaietan jardun ezin dutenerako.</p> <p><b>Bosgarrena.-</b> Botoa aldeztu aurretik noren aurrean eman daitekeen eta zein ordutegian egin daitekeen erabakitzea.</p> |

|  |  |
|--|--|
| <p><b>3. bilera</b><br/> <b>Azaroaren 24an</b> (ostirala)<br/>         eguerdiko <b>12.00etatik</b><br/> <b>aurrera</b><br/>         Gai zerrenda:</p> | <p><b>Lehena.</b>- Aurreko bilerako akta irakurri eta, egokituz hartuz gero, onartzea.</p> <p><b>Bigarrena.</b>- Hautagaien behin betiko aldarrikapena (Ikastegiko Batzarrerako) eta Ikastegiko iragarki taulan argitatzeko agindua ematea.</p> <p><b>Hirugarrena.</b>- Klaustorako aurkeztu diren hautagaien inpuñazioen inguruko txostena burutzea, Hauteskunde Batzorde Orokorrera bidaltzeko.</p> <p><b>Laugarrena.</b>- Bozketarako erabiliko diren gutun-azalen eta boto-paperren aukeraketa (Ikastegi Batzorderako hauteskundeetarako)</p> <p><b>Bosgarrena.</b>- Propaganda ekintzak nola burutu ahal diren eta horretarako egutegia finkatzea (Ikastegiko Batzarrerako hauteskundeetarako Hauteskunde Kanpaina)</p> <p><b>Seigarrena.</b>- Hauteskunde egunaren zehaztapenak: bozketak non egingo diren, boto eskubidea egikaritzeko irakas-ordutegiaren murrizketa, bestelakoak.</p> |
| <p><b>4. bilera</b><br/> <b>Abenduaren 13an</b><br/>         (asteazkena) lehenengo orduan.<br/>         Gai zerrenda:</p>                             | <p><b>Lehena.</b>- Aurreko bilerako akta irakurri eta, egokituz hartuz gero, onartzea.</p> <p><b>Bigarrena.</b>- Klaustorako hauteskundeetarako behin-behineko emaitzen aldarrikapena eta Ikastegiko iragarki taulan argitatzeko agindua ematea.</p> <p><b>Hirugarrena.</b>- Ikastegiko Batzarrerako hautatutako ikasleen ordezkarien emaitzen behin-behineko aldarrikapena.</p> <p><b>Laugarrena.</b>- Klaustorako Hauteskundeetarako espediente osoa Hauteskunde Batzorde Orokorrera bidaltzeko agindua ematea.</p>  |
| <p><b>5. bilera</b><br/> <b>Abenduaren 18an</b><br/>         (astelehena) 13:00etatik<br/> <b>aurrera.</b><br/>         Gai zerrenda:</p>              | <p><b>Lehena.</b>- Aurreko bilerako akta irakurri eta, egokituz hartuz gero, onartzea.</p> <p><b>Bigarrena.</b>- Behin-behinekoz aldarrikatutako Ikastegiko Batzorderako hautatuak izan diren ikasle ordezkarien kontrako inpuñazioak ebaztea.</p> <p><b>Hirugarrena.</b>- Ikastegiko Batzorderako hautatuak izan diren ikasleen ordezkarien emaitzen behin betiko aldarrikapena eta Ikastegiko iragarki taulan argitatzeko agindua ematea.</p>  |



## I.ERANSKINA

### IKASLEEN KLAUSTORAKO HAUTESKUNDEETARAKO EGUTEGIA. 2017

- Hauteskundeak egiteko erabakia argitaratzea: 2017ko urriaren 27an (ostirala)
- Errolda ixtea: 2017ko azaroaren 2an (osteguna)
- Behin-behineko errolda argitaratzea: 2017ko azaroaren 3ean (ostirala)
- Errolda inpugnatzea: 2017ko azaroaren 8ko 12.00ak arte (asteazkena)
- Behin betiko errolda argitaratzea: 2017ko azaroaren 9an (osteguna)
- Hautagai zerrendak aurkezteko azken eguna: 2017ko azaroaren 17ko 12.00ak arte (ostirala)
- Behin-behineko hautagai zerrendak aldarrikatzea: 2017ko azaroaren 21an (asteartea)
- Hautagai zerrendak inpugnatzea: 2017ko azaroaren 24eko 12.00ak arte (ostirala)
- Behin betiko hautagai zerrendak aldarrikatzea: 2017ko azaroaren 27an (astelehena)
  
- **BOZKETA:** **2017ko abenduaren 12ean (asteartea)**
  
- Klaustrokideen behin-behineko zerrenda aldarrikatzea: 2017ko abenduaren 13an (asteazkena)
- Jatorrizko espedientea Hauteskunde Batzorde Nagusiari igortzea: 2017ko abenduaren 13an (asteazkena)
- Klaustrokideen behin-behineko zerrendaren inpugnazioa: 2017ko abenduaren 18ko 12.00ak arte (astelehena)
- Klaustrokideen behin betiko zerrenda aldarrikatzea: 2017ko abenduaren 18an (astelehena)
- Ikastegiko ikasleen kontseilua eratzea, pertsona bakarreko organoen hautatzea eta campuseko ikasleen kontseilurako ordezkariaren izendatzea: 2017ko abenduaren 20an (asteazkena)

**BOTOA AURRETIK EMATEKO EGUNAK: ABENDUAREN 1ean, 4ean eta 5an.**





## ERANSKINA

### IKASLEEN KLAUSTRORAKO HAUTESKUNDEETARAKO EGUTEGIA. 2013ko AZAROA/ABENDUA

- Hauteskundeak egiteko erabakia argitaratzea: 2013ko urriaren 31an (osteguna)
- Errolda ixtea: 2013ko azaroaren 4an (astelehena)
- Behin-behineko errolda argitaratzea: 2013ko azaroaren 5ean (asteartea)
- Errolda inpugnatzea: 2013ko azaroaren 11ko 12.00ak arte (astelehena)
- Behin betiko errolda argitaratzea: 2013ko azaroaren 13an (asteazkena)
- Hautagai zerrendak aurkezteko azken eguna: 2013ko azaroaren 20ko 12.00ak arte (asteazkena)
- Behin-behineko hautagai zerrendak aldarrikatzea: 2013ko azaroaren 22an (ostirala)
- Hautagai zerrendak inpugnatzea: 2013ko azaroaren 26ko 12.00ak arte (asteartea)
- Behin betiko hautagai zerrendak aldarrikatzea: 2013ko azaroaren 28an (osteguna)
- **BOZKETA:** **2013ko abenduaren 10ean (asteartea)**
- Klaustrakideen behin-behineko zerrenda aldarrikatzea: 2013ko abenduaren 11an (asteazkena)
- Jatorrizko espedientea Hauteskunde Batzorde Nagusiari igortzea: 2013ko abenduaren 13an (ostirala)
- Klaustrakideen behin-behineko zerrendaren inpugnazioa: 2013ko abenduaren 16ko 12.00ak arte (astelehena)
- Klaustrakideen behin betiko zerrenda aldarrikatzea: 2013ko abenduaren 18an (asteazkena)
- Ikastegiko ikasleen kontseilua eratzea, pertsona bakarreko organoen hautatzea eta campuseko ikasleen kontseilurako ordezkariaren izendatzea: 2013ko abenduaren 20an (ostirala)

**BOTOA AURRETIK EMATEKO EGUNAK: ABENDUAREN 2an, 3an eta 4an.**

